

**Ingurune ekonomikoa**

BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa<sup>(1)</sup>

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2007	2008	IV-2007	I-2008	II-2008	III-2008	IV-2008
<b>Nekazaritza</b>	9,8	-0,2	14,9	5,6	0,2	-6,0	-1,2
<b>Industria</b>	4,0	0,2	2,2	1,7	1,4	0,5	-2,8
<b>Eraikuntza</b>	4,6	-0,1	3,3	2,3	1,1	-1,0	-2,9
<b>Zerbitzuak</b>	4,2	3,3	4,6	3,9	3,4	3,2	2,5
<b>Kontsumoa</b>	3,8	2,0	3,7	3,1	2,3	1,9	0,9
<b>KEG<sup>(2)</sup></b>	5,5	1,4	4,0	3,1	3,0	1,8	-2,2
<b>Barne eskaera</b>	4,4	1,9	3,9	3,1	2,5	1,9	0,0
<b>Esportazioa</b>	7,6	4,5	7,1	7,0	9,1	6,1	-3,8
<b>Inportazioa</b>	7,6	4,2	7,2	6,6	8,4	6,0	-4,2
<b>BPGda</b>	4,1	2,0	3,8	3,2	2,5	1,8	0,4

<sup>1</sup>Iturria: Eustat. <sup>(1)</sup> Bolumen kateatua. <sup>(2)</sup> Kapital eraketa gordina.

2008ko laugarren hiruhilekoan, euskal ekonomiaren dezelerazioa biziagotu egin da eta urte arteko aurrerakuntza %0,4 apala izan da. Hiruhileko arteko hazkundea negatiboa izan da (-%1,1), estatistika hau jasota dagoen azken hamabost urteetan lehendabiziko aldiz. Hala ere, hazkunde negatibo hori EB-27ko batez bestekoa (-%1,5) baino txikiagoa izan da. 2008an, oro har, euskal ekonomiaren hazkundea %2koa izan da. Hain zuzen, Estatuko hazkundea (%1,2) baino zortzi hamarren handiagoa izan da, eta EB-27koa (%0,9) baino puntu bat eta koska handiagoa.

Eskariari dagokionez, nabarmentzekoa da barne-eskariak izan duen uztegia. Zehazki, urte arteko zero hazkundea izan du laugarren hiruhilekoan


(%1,9ko hazkundea, aurreko hiruhilekoan). Osagaiak aztertuta, ikus daiteke kontsumoak oraindik tasa positiboa mantentzen duela (%0,9), dezelerazioa jasan duen arren. Administrazio publikoaren kontsumoak, zehazki, hazkunde handia izan du (%6,1), baina alde handia dago estatistika horren eta familien gastuaren (-%0,4) eta inbertsioaren artean (-%2,2). Kanpoko sektorearen hazkundera egindako ekarpena positiboa izan da (lau hamarren). Arlo horretan, baina, esportazioek eta inportazioek atzera egin dute (-%3,8 eta -%4,2, hurrenez hurren).

Eskaintzaren ikuspegitik, adieraztekoa da soilik zerbitzuen sektoreak izan duela hazkunde-tasa positiboa (%2,5), batez ere merkatukoak ez diren zerbitzuei esker (%7,1). Gainerako sektoreek atzerakada izan dute. Industria sektoreak urte arteko tasa negatiboa izan du (%2,8), eta hiru puntu baino gehiago galdu du, aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta (%0,5eko tasa, hirugarren hiruhilekoan). Bestalde, eraikuntzak uztegia jasan du bigarren hiruhilekoz jarraian, eta beherakada gogorragoa izan du (-%2,9 laugarren hiruhilekoan, -%1 hirugarren hiruhilekoan). Eraikuntzaren beherakadari dagokionez, obra zibilak portaera hobea izaten jarraitzen du, baina ez da nahikoa eraikuntzako azpi-sektorearen bilakaera negatiboa orekatzeko. Lehen sektoreak ere atzera egin du (-%1,2), baina aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta (-%6) nolabaiteko susperraldia izan du.

Hiruhileko honetako eta urteko behin-behineko itxierako emaitzak Eusko Jaurlaritzak abenduan egindako zenbatespenak baino okerxeagoak, eta horrek behartu lezake 2009rako egindako aurreikuspenak (%0,5eko hazkundea) berraztertzea.

**Enpleguaren egoera**


Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatkoa (EAE, mila pertsona)



\*Iturria: Eustat

Enpleguari buruzko datuek jardura ekonomikoa zer-nolokoa den erakusten dute. Urteko laugarren hiruhilekoan landun-kopuruak behera egin du (18.600 landun gutxiago), aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (-%1,9). Era berean, langabeen kopuruak gora egin du (15.000 langabe gehiago dago, alegia, %47,8 gehiago). Hori dela eta, langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %4,6raino igo da, duela urtebete baino 1,5 ehuneko puntu gehiago. Sektore guztietan nabaritu da enpleguaren beherakada: zerbitzuen sektorean 8.600 landun gutxiago dago, eta eraikuntzan 7.900. Jasotako langabezia-datuaren arabera, urria eta abendua artean langabeziak %27,1 egin du gora, urtetik urtera. Beraz, urtearen amaieran guztira 100.637 lagun zeuden Enpleguko Institutu Nazionalen izena emanda.


**Soldatoko biztanleria, kontratu motaren arabera (ehunekotan banatuta)**



Soldatoko biztanleria-kopuruak behera egin du urtetik urtera (-%1,5); 788.900 soldatoko biztanle izan dira ekitaldiko laugarren hiruhilekoan. Haietatik %77k kontratu mugagabea du, %20,1ek aldi baterakoa eta gainerako %2,9k ez du kontraturik edo bestelako egoeran dago. Hortaz, behin-behinekotasunak behera egin du arinki, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Bestalde, urria eta abendua artean EINen %14,2 kontratu gutxiago erregistratu da (behin-behinekotasunak behera egin duenean eta aurreko hiruhilekoan ikusitakoari jarraikiz), eta horrek eragina izan du kontratazio mugagabeetan eta aldi baterakoetan (-%19 eta -%13,8, hurrenez hurren)

**Negoiazio kolektiboa**

**Negoiazio kolektiboaren jarraipena**  
(EAEko negoiazio kolektiboak 642.636 pertsona ukitzen ditu)




- BERRITATZEKO HITZARMENAK:** Indarraldia amaitu duten eta aztertzen dugun hiler arte berritatu ez diren hitzarmenek ukituriko langileak. 365 hitarmen dira.
- 2008 URTEAN ERREGISTRATURIKO HITZARMENAK:** 2008an zehar erregistratu eta urte horretan indarrean dauden hitzarmenek ukituriko langileak (hilez hil metatutako baloreak)
- AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** Hainbat urteko indarraldia duten, 2007ko abenduaren 31 arte erregistratu diren eta 2008an indarrean dauden hitzarmenek ukituriko langileak

Fuente: Elaboración propia con información del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, Gobierno Vasco

geroztik). Gipuzkoan berritzeke daude sektoreko 21 hitzarmen, eta horietatik 12 berritu gabe daude 2003. urteaz geroztik edo lehenagotik. Negoiazio kolektiboaren egoera, oro har, hobea da azken urteetako baino, hitzarmen berritua duten langileen ehunekoak gora egin duelako. Hala ere, akordioak egiteko zailtasun handiak daude eta, horregatik, negoiazio-prozesuak luzeak izaten dira: 2008an erregistratutako sektoreko hitzarmenetan 354 egun izan da batez bestekoa. Enpresako hitzarmenei dagokionez, hitzarmenen %35,9 sinatzeke dago, eta horiek arlo horretako langileen %30,7rengan dute eragina. Hitzarmenen edukietan nabarmentzekoa da sartzan hasi direla Legeak babestutako berdintasun-planen azterketa (Endesa, adibidez), lana eta familia bateratzea (Iberdrola, esate baterako) eta gizarte-erantzukizun enpresariala (kanpoko prebentzio-zerbitzuak, adibidez).

**Itundutako soldata igoeren eta inflazioaren bilakaera**




(\*) 2008ko abenduaren 31 arte erregistraturiko hitzarmenetan

2008ko ekitaldian 292 hitzarmen erregistratu dira, eta hitzarmen horiek 126.913 lagunengan izan dute eragina (negoiazio kolektiboari atxikitako pertsonen guztizkoaren %19,7). 2008. urtearen hasieran, 369 hitzarmen dagoeneko berrituta zeuden, eta hitzarmen horiek eragina izan zuten lan-harremanak hitzarmen bidez araututa izan zitzaizketen langileen %49,2rengan. Beraz, 2008. urtearen amaieran, oraindik 365 hitzarmen zeuden berritzeke, eta hitzarmen horiek langileen %31,1engan izan zuten eragina. Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu ehuneko hori txikiagoa izango litzatekeela baldin kontuan izango balira indarrean diren estatutuz kanpoko hitzarmenak, besteak beste, Araba eta Bizkaiko metalaren industriakoak. Horiek eragina dute negoiazio kolektiboaren egitura osatzen duten langileen guztizkoaren %12rengan. Gainera, Araban sektoreko 5 hitzarmen berritu gabe daude, eta horien artean nabarmentzekoa da janari merkataritza. Bizkaia sektoreko 17 hitzarmen falta dira, besteak beste, zuraren industria (egiteke 2003. urteaz geroztik). Beste batzuk ere berritu gabe daude lehenagotik, esate baterako: abokatuen bulegoak (2000. urteaz geroztik), ile-apaindegiak (2001. urteaz geroztik), eraikuntzarako materialak (2002. urteaz geroztik) eta beira lauaren manufaktura (2002. urteaz

E erritutako hitzarmenetan %4,44ko soldata-gehikuntza hitzartu da (langile-kopurua kontuan izanik haztatutako batez bestekoa), eta Estatuko (%3,54) baino handiagoa da. 2008ko KPIren bilakaerari lotuta, berrikuspen-klausulen doiketak aztertzean, ikusi da portzentajezko bi ehuneko batez besteko eragin negatiboa izan dela, inflazioa aurreikusitakoa baino txikiagoa izan delako 2008ko abenduan. Hala ere, nabarmen estutu da hitzarmen horien araupean dauden pertsonen erosteko ahalmena hobetzeko tartea, baldin hori balioztatzen azken hamabi hilabeteko batez besteko inflazioa (4,1%) baliatzen badugu. Eremu funtzionalak aztertzen badira, adieraz daiteke sektoreko hitzarmenetan itundutako soldata-gehikuntza (%4,63) handiagoa izan dela enpresakoa baino (%3,62). Lurraldeka,

Gipuzkoan eta Bizkaian izan dira gehikuntza handienak (%5 inguru, bi kasuetan), zenbait sektoretan egindako akordioei esker, besteak beste: eraikuntzan, bi lurraldeetan; merkataritzan, oro har, Bizkaian; eta siderometalurgian, Gipuzkoan. Berariaz EAEn erregistratzen diren hitzarmenak aztertzen baditugu, ikus daiteke itundutako soldata-gehikuntza %4,97 izan dela. Ehuneko hori argi eta garbi handiagoa da Estatuan egin eta EAEn eragina duten hitzarmenetan erabakitakoa baino (%2,74)..

Hitzarmen kolektiboan itunduriko lanaldi murrizketak



Ranaldiari dagokionez, azken urteetan izan den joerak jarraitzen du; alegia, lanaldiaren murrizketak ezartzen dituzten hitzarmenak gero eta gutxiago dira (berritutako hitzarmenen %25,8). Azkenaldian ohikoa den bezala, EAEn erregistratu dira lanaldiaren murrizketa hitzartu duten hitzarmen gehien (%32,8); aldiz, murrizketa hitzartu duten Estatuko hitzarmenen kopuruak (EAEn eragina dutenak) behera egin du (%12,8). Halaber, hitzartutako murrizketaren zenbatekoa (urteko ordu eta erdi, 2007ko lanaldiarekin alderatuta) nabarmen txikiagoa da duela zenbait urte hitzartutakoak baino (grafikoan ikus daiteke). Kontuan izan behar da, hitzarmen asko berritzeke daudenez, eremu horietan, egiaz, lanaldia aldatu gabe mantendu dela eta,

zenbait kasutan, hala izan dela duela hainbat urtetik hona. Horregatik, interesgarri deritzogu aplikagarri den lanaldia balioztatzeari. Hau da, guztizko hitzarmen kolektibo, hitzarmen berri eta berri gabeko hitzarmenen emaitza den lanaldia balioztatzeari. Azken horietan, aintzat hartu behar den lanaldia negoziatu den azkena da. Horrenbestez, lanaldiaren murrizketa ordu bate izango litzateke, urtean. Ia eremu guztietan murriztu da, arinki, aplikagarri den lanaldia, salbu Arabakoetan eta EAEn eragina duten Estatukoetan. Murrizketa handienak lurralde arteko hitzarmenetan izan dira; hain zuzen, hiru orduko murrizketa izan da.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak

		2003	2004	2005	2006	2007	2008
ARA-BA	Grebak	38	41	36	57	42	54
	Partaideak	6.883	11.680	6.274	6.359	4.916	4.793
	Egunak	43.795	47.338	32.990	12.036	7.940	8.910
BIZ-KAIA	Grebak	118	116	85	109	91	107
	Partaideak	24.043	47.620	39.817	44.543	27.873	27.182
	Egunak	128.756	197.233	56.673	122.216	68.507	41.998
GIPUZ-KOIA	Grebak	65	86	55	58	71	71
	Partaideak	43.868	41.758	7.025	11.675	13.703	9.208
	Egunak	167.315	361.584	16.525	34.181	36.050	22.861
EAE	Grebak	221	243	176	224	204	232
	Partaideak	74.794	101.058	53.116	62.577	46.492	41.183
	Egunak	339.866	606.155	106.188	168.433	112.497	73.769

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila  
Egunak: Lan egin gabeko egunak

EAEn. Lanuzteetan 46.343 langilek hartu du parte, eta, guztira, 73.769 lanalditan ez da lanik egin. Datu horietatik ondorioztatutakoaren arabera, nahiz eta lanuzte gehiago izan den 2007an baino, era berean, parte-hartzaile gutxiago izan da (-%11,1) eta lanik egin ez den lanaldi kopuruak ere behera egin du (-%34,4). Oro har, lanuzteak izan diren enpresetako langileen %34k jasan du lanuzteen eragina. Urteko laugarren hiruhilekoan izan zen lanuzteen %26, eta lanuzte horietan 10.866 langilek jasan zuen eragina eta 16.930 lanalditan ez zen lanik egin.

Negoiazio kolektiboko desadostasunak dira, oraindik ere, gainerakoan artean nabarmentzen den alderdia, nahiz eta nabarmen hazi diren «Bestelako arrazoiak» atalean sartutako lanuzteak sortu dituzten

arrazoiak. 2008an, hitzarmen kolektiboen negoziazioan adostasunik ez izatearen ondorioz izan dira lanuzteen %48, parte-hartzaileen %57 eta lanik egin ez den lanaldien %65. Arrazoi horrek eragindako lanuzte-kopurua ez da aldatu ia, iazko datuekin alderatuta, eta parte-hartzaile kopurua eta lanik egin ez den lanaldien kopurua nabarmen murriztu da.

Bestalde, adierazi behar da 2008an izan diren 232 lanuzteetatik 217 enpresa-eremuan izan direla; horrek langileen guztizkoaren % 67 eta lanik egin ez den lanaldien guztizkoaren %81 hartzen du. Hortaz, iazko datuekin alderatuta, lanuzteek eragin zabalagoa izan dute. Hain zuzen ere, iaz enpresako lanuzteek parte-hartzaileen %55ek eragina jasan zezan eta lanaldien %74an lanik egin ez zedin eragin zuen. Sektore ekonomikoen barruan, lanuzteek zerbitzuetan izan dute eraginik handiena; zehazki, 134 lanuzte izan dira, eta lanuzte horiek barne hartu dute langileen %77 eta lanik egin ez den orduen %67.

Lurralde azterketak erakusten du laneko auziek bilakaera desberdina izan dutela. Lanuzteen kopuruak gora egin du Araban (%28,6) eta Bizkaian (%17,6); Gipuzkoan, aldiz, egonkor mantendu da. Parte-hartzaile kopurua murriztu egin da Gipuzkoan (%32,8), bai eta Araban eta Bizkaian ere (%2,5). Bestalde, lanuzteen eraginez lanik egin ez den lanegunen kopurua %38,7 murriztu da Bizkaian, eta %36,6 Gipuzkoan. Araban, baina, gora egin du, %12,2.

**Enplegua erregulatzeko espedienteak**

**Euskal Administrazioak baimenduriko enplegua erregulatzeko espedienteak**

	Espedienteak <sup>(1)</sup>	Ukituriko langileak <sup>(1)</sup>			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008	496	12.795	108	11.217	1.470


(1): Euskal Administrazioak baimendutako espedienteak.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

2008an, EAEn, enplegua erregulatzeko 496 espediente baimendu dira, guztira (espediente horien %69 urteko azken hiruhilekoan baimendu ziren) eta 12.794 langilerengan izan dute eragina. Datu horiek erakusten dute, iazko datuekin alderatuta, baimendutako espedienteen kopurua %76 gehitu dela, eta eragina jasan duten langileen kopurua %166. Nabarmendu behar da kasuen %92n sindikatuak adostasunera iritsi direla. Eragin handiena jasan duen lurralde historikoa Bizkaia izan da; hain zuzen, espedienteen eta langileen %45ek

jasan du eragina. Adieraztekoa da, nahiz eta gehien bat hartu den neurria laneko harremana aldi baterako etetea izan den (11.216 langile, laneko harremana haztatutako batez besteko 140 eguez etenda), 1.470 kontratu desegin dira eta 57 enpresa itxi dira. Bestalde, nabarmen hazi da murrizte-espedienteen eragina jasan duten langileen kopurua (%535,3), bai eta etete-espedienteen eragina jasan dutenena (%190,9) eta deuseztatze-espedienteen eragina jasan dutenena ere (%56,1). Krisi ekonomikoak 2008ko ekitaldian izan duen garrantzia eta eragina zehatzago balioztatze, komeni da nabarmentzea 2007an arrantza sektorean ezinbesteko 157 etete-espediente baimendu zirela, antxoia arrantzatzeko debekualdia zela eta, eta horrek 1.843 langilerengan izan zuen eragina. Beraz, inguruabar hori aintzat hartuko ez bagenu (ez zen 2008an gertatu), 2008an izandako hazkundera are handiagoa izango litzateke. Espedienteak sortzea eragin duten kausak aztertzen baditugu, «Bestelako arrazoiak» (finantzen eta eskariaren arloko kausak ez direnak) gehiago izan dira (245 espediente) eta langile gehiagorengan izan dute eragina (6.502 langilerengan). Aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta ere gehiago izan dira (espedienteen kopurua %16,1 igo da, eta eragina jasan duten pertsonen kopurua %101,4). Berdintsu, finantza-arrazoiak direla eta egin diren espedienteen kopurua (76 espediente, eta 1.235 langilerengan dute eragina), bai eskari-arrazoiak direla medio egin direnak (175 espediente, eta 5.058 langilerengan dute eragina) gehitu egin dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2007an espedienteen %49, eta 2008an %775; 2007an eragina jasan duten langileen %50,2, eta 2008an %561). Industria sektoreak jasan du eragin handiena; industrian sartu dira espedienteen %69 eta horietara lotutako langileen %85. Bestalde, espediente horiek eragin handiagoa izan dute gizonezkoetan (%81) emakumezkoetan baino (%19).

**Lan istripuak erregistratutako datuen arabera**

**Ezgai egoeran egon diren langile kopuruaren aldakuntza aurreko urtearen aldean (%)**



2008an EAEn ezgai egoerako istripua izan duten langileak guztira 50.640 izan dira. Honek esan gura du urteen arteko %2,4ko igoera izan dela, kopuru hauetan lanaldiko istripuak, in itinere gertatuak eta lanbide gaixotasunak, guztiak ere barne direla. Igoera hau lanaldian ukitutako pertsonen kopuruaren (44.437), hazkundera zor zaio, %113,1eko hazkundera izan baita; in itinere ukitutakoak (4.656), berriz, %2,7 jaitsi dira. Lanaldian ezgai egoera eragin duten istripuak izan dituzten pertsonen kopururik, ikusiko dugu bai lehen sektorean eta bai eraikuntzan istripua izandako pertsonak jaitsi direla (%2,2 eta %3,8, hurrenez hurren), industrian eta zerbitzuetan istripuak igo egin direlarik, %2,1 eta %2,7, igo ere. Ezbeharren larritasunari dagokionez, istripu arinek ukitutako pertsonak (44.115) %1,3 igo dira, istripu larriek ukituak (275) eta istripu hilgarrietakoak (47), aldiz, hurrenez hurren %17,9 eta

%7,8 jaitsi direlarik. Gainera, istripu hauen kausak sakonkiago aztertu eta enpresetako prebentzio neurriekin erlazionatzeko, lanaldiko istripu hilgarriak %23a bidaietan, hau da, lantokiaz kanpora eta batez ere trafikoko istripuetan gertatu direla ikus daiteke. Lantokian gertatutako arteen, berriz, 2007koen aldean %24 igoera gertatu dela ikus daiteke (oraingoz nahikoa ez bada ere). Era berean, istripu hauen %59 traumatikoak izan direla esan behar da. Traumatikoak izan ez diren gainerakoak bihotz-hodietako arazoek eragindakoak izan dira batez ere. Beste alde batetik, istripuen eragina aurreko ekitaldiko maila berean dago oraingoz ere, hau da, mila landun bakoitzeko lanaldiko 46 istripu egon dira.